



EBAZPENA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearena, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langile finkoek lanpostu hutsak betetzeko lehiaketarako deia egiteko dena.

Arrazoien azalpena

Kontuan hartu behar da UPV/EHUko lan kontratudun administrazio eta zerbitzuetako III. hitzarmen kolektiboak dioena 15. artikuluko 6. puntuan lanpostu hutsak betetzeari buruz: "Lanpostu hutsak betetzeko lehenengo lehiaketa orokorra (hurrengo artikuluan jasotzen den promozioaren aurrekoa) burutu eta ondorengo lan eskaintza publikoa egin ostean, lan kontratudun langile finkoen artean beharrezko prozedurak ezarriko dira, eta bermatuko da lanpostu huts bakoitzeko deialdi bat egongo dela gutxienez, lanpostu hori beste edozein prozesutan eskaini aurretik".

Beraz, lanpostu hutsak betetzeko oraingo deialdian atera beharko dira aipatutako hitzarmena indarrean sartu zenetik lanpostu hutsak betetzeko egin diren prozesuetan prozedura horren bidez gutxienez behin eskaini ez diren lanpostuak.

Hortaz, sortu diren lanpostu hutsak betetzeko deia egiten da, aurreko prozesua arautu zuten printzipio eta irizpideei eutsita, hala oinarritzkoen nola prozedurari dagozkienei.

Hori guztia kontuan hartuta, eta UPV/EHUko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakiak emandako eskumenak erabiliz (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko erabakia), honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Deia egitea ebazpen honen bigarren oinarrian agertzen diren lanpostu hutsak betetzeko.

Bigarrena.- Onartzea aipatutako lehiaketako oinarriak.

Errekurtsoak: Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta kontra egiteko, lan demanda jar daiteke zuzenean Lan arloko Epaitegian, bi hilabeteko epean, bat



etorrita lan arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legeko 69. artikuluan adierazitakoarekin.

Javier Varona Guarás

Euskal Herriko Unibertsitateko gerentea



OINARRIAK:

1.- Parte hartzeko baldintzak

1.1.- UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako lan kontratadun langile finko hauek hartu ahal izango dute parte lehiaketan: zerbitzuan alta emanda daudenak, nahitaezko eszedentzian daudenak, eszedentzia berezian edo eszedentzian daudenak bere kargupeko seme-alabak zaintzeko, eszedentzian daudenak ezkontidearen edo izatezko bikotearen seme-alabak edo bigarren mailara arteko senideak zaintzeko, eta beste administrazio publiko batean ari direlako eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatzen dutenak (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan). Era berean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.1.1.- Eskatzen den lanpostuaren sailkapen talde, kategoria profesional eta espezialitate berekoa den lanpostu baten titular finkoa izatea, eta lanpostua betetzeko lanpostuen zerrendan ezarritako baldintza guztiak betetzea. Bigarren instantzian, parte hartu ahal izango dute, III. hitzarmen kolektiboko 12.3 artikulua babesean, sailkapen, kategoria eta espezialitate bereko lanpostu baten titular finkoek, betiere, lanpostuen zerrendan ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

1.1.2.- Deialdiko lanpostuei dagozkien eginbeharrak betetzeko gaitasun nahikoa izatea.

1.1.3.- Diziplina espedientearen bidez administrazio publikoetatik aldendua ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea.

1.1.4.- Administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 53/1984 legean aurreikusten diren ezgaitasun eta bateraezintasunerako legeko zioen bat ez izatea.

1.1.5.- Lanpostua betetzeko baldintzak eta merezimenduak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik izan beharko dira beteta eta kontratua berritu arte bete beharko dira.

2.- Deialdiko lanpostuak

2.1.- Deialdiko lanpostuak I. eranskinean jasotakoak dira.



2.2.- Prozedurak bi fase izango ditu: lehenengo fasean, eranskinean jasotako lanpostu guztiak eskainiko dira; bigarren fasean, eskainiko dira lehenengo faseko esleipenen ondoren hutsik geratutako lanpostuak.

3.- Eskariak

3.1.- Eskari guztiak deialdi honetan zehaztutako epe bakarrean aurkeztuko dira.

3.2.- Edonola ere, eskatutako lanpostuan aritzeko beharrezkoak diren baldintzak bete beharko dira.

4.- Eskariak aurkezteko eta onartzeko era

4.1.- Eskariak UPV/EHUko gerenteari zuzenduko zaizkio eta hamar egun balioduneko epean aurkeztuko dira, erabaki hau 12. oinarrian zehaztutako tokian argitaratu eta biharamunetik hasita.

4.2.- Eskatzaileek, onartuak izateko, eskariaren edo formularioaren atal guztiak bete beharko dituzte. Eskarian adierazi beharko dute lehenengo oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta, bete ere, eskariak aurkezteko epea amaitzen den datarako.

4.3.- Eskarian nahi beste lanpostu eska daitezke, norbere lehentasunaren arabera sailkatuta, eta, betiere, lanpostuotarako baldintzak betetzen badira. Ez dira kontuan hartuko behar bezala identifikatu gabeko lanpostuetarako eskariak.

4.4.- Eskariarekin batera merezimenduen zerrenda aurkeztu beharko da, merezimendu horiek egiaztatze behar diren agiri guztiekin batera; ez da agiririk aurkeztu beharko baldin eta eskari egileak berariaz adierazten badu agiriok Pertsonalerako gerenteordetzaren esku daudela.

4.5.- Desgaitasunen bat daukaten langileek hala adierazi beharko dute eskarian. Eskatzaileak desgaitasuna aitortzen dion ziurtagiria ofiziala aurkeztu beharko du, eta behar dituen egokitzapenen berri ematen duen txostena. Dokumentu hori onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu baino lehen aurkeztu beharko da, kasuan kasuko epaimahaiak beharrezko neurriak har ditzan. Desgaitasuna duten



pertsonatzat joko dira Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean hala definitutakoak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, 4.2 art.), hau da, administrazioko organo eskudunak %33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak.

4.6.- Eskariak eredu ofizial eta arautuan aurkeztuko dira, bide elektronikoa erabilia. Horretarako, Langileen Atarian egongo den eskari orria bete eta gorde beharko da. Aplikazioak erregistro zenbaki bat sortuko du eskari bakoitzerako. Eskatzaileak bere eskaria kontsultatu ahal izango du "Nire eskariak" atalean.

Bestalde, Langileen Atarirako sarbiderik ez dutenek, eskaria aurkeztu ahal izango dute urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4.a) artikuluan zehaztutako lekuetako batean.

4.7.- Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, ezin ezingo da egin aldaketarik aurkeztutako eskarietan.

5.- Onartuen eta baztertuen zerrenda

Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, UPV/EHUko gerenteak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, baztertzeko arrazoiak zehaztuta. Horretarako, ebazpena emango du eta 12. oinarrian adierazitako web gunean argitaratuko da.

Ebazpen horren kontra erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio gerenteari bost egun baliodunen epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Erreklamazioak ebatzita, UPV/EHUko gerentearen ebazpenaren bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da aipatutako web gunean.

6.- Merezimenduen balorazioa

Lehiakideek 30 puntu lortuko dituzte, gehienez ere, puntu honetan adierazten diren merezimendu guztien balorazioagatik, euskara izan ezik. Puntu horiek honela banatuko dira:



6.1.- Antzinatasuna: Administrazio publikoen zerbitzura egindako urte oso bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko: 0, 45 puntu, eta gehienez, 8 puntu.

Lan kontratudun langile finko izan aurretik emandako zerbitzuak ere baloratuko dira atal honen barruan. Ez dira kontuan hartuko, baina, eskarian adierazitako zerbitzu batzuekin batera, aldi berean, emandako zerbitzuak.

6.2.- Emandako zerbitzuak: UPV/EHUn, TEKAZELeke lanposturen batean, emandako zerbitzuengatik 9 puntu gehienez, honela banatuta:

6.2.1.- Eskatzen den lanpostuaren sailkapen talde, kategoria eta espezialitate profesional bereko lanpostua betetzeagatik lan kontratudun langile finko edo aldi baterako langile moduan, 0,1 puntu hilabeteko; eta gehienez, 9 puntu.

6.2.2.- Eskatzen den lanpostuaren sailkapen talde eta kategoria profesional bereko baina beste espezialitate bateko lanpostua betetzeagatik lan kontratudun langile finko edo aldi baterako langile moduan, 0,1 puntu hilabeteko; gehienez, 7,5 puntu.

6.2.3.- Eskatzen den lanpostuaren espezialitate bereko baina beste sailkapen talde bateko lanpostua betetzeagatik lan kontratudun langile finko edo aldi baterako langile moduan, 0,1 puntu hilabeteko; gehienez, 5,5 puntu.

6.2.4.- Esleituko diren eginkizunak dituen lanpostuaren talde baliokideko lanposturen batean aritzeagatik bitarteko edo karrerako funtzionario legez: 0,1 puntu hilabeteko; gehienez, 3,5 puntu.

6.2.5.- Eskatutako lanpostuaren taldekoa ez den beste lanposturen batean aritzeagatik karrerako edo bitarteko funtzionario legez, edo lan kontratudun finko edo behin-behineko legez, 0,1 puntu hilabeteko; gehienez, 1,5 puntu.

6.2 puntu honetako baremoa hurrenkeran aplikatuko da; hortaz, ezin izango da aldi bat bera baloratu atal batean baino gehiagotan.



6.3.- Eskatzen den lanpostuan emandako zerbitzuak: Eskatzen den lanpostuan langile finko moduan aritu izanagatik, horretarako bete behar diren baldintzak beteta, 0,1 puntu hilabeteko; gehienez, 4 puntu.

6.4.- Emandako zerbitzuen merezimenduei buruzko xedapenak

6.1., 6.2. eta 6.3. ataletan ez dira aintzat hartuko enpresa pribatuetan edo langile autonomo gisa emandako zerbitzuak.

6.2 eta 6.3. puntuetan adierazitako merezimenduak baloratuko dira eskariak aurkezteko azken egunera arte lan egindako aldietako hilabeteak kalkulatuta. Hilabetera heltzen ez diren aldiak batu egingo dira, eta 30 egun natural hilabetetzat hartuko dira. Edonola ere, atal bakoitzean kasuan kasuko aldiak baino ez dira batuko.

Zerbitzu aktiboan emandako aldiak baino ez dira baloratuko edo egoera hauetako batean emandakoak: borondatezko eszedentzia kargupeko seme-alabak zaintzeko, eszedentzia ezkontidea edo bigarren mailara arteko senitartekoa zaintzeko edo eszedentzia berezia..

6.5.- Titulu akademikoak eta prestakuntza ikastaroak

Gehienez ere, 2,5 puntu lortu ahal izango dira eta eskatutako lanposturako behar den titulu akademiko ofiziala hartuko da oinarritzat; horrela, merezimendutzat aurkeztutako titulu ofiziala ezin izango da izan jatorrizko taldean eta eskalan sartzeko eskatutakoa, eta, betiere, eskatutako lanposturako behar den titulu ofizialaren maila berekoa edo goragokoa izan beharko da.

Hurrengo lau atalak batuta, 9 puntu lor daitezke gehienez.:

6.5.1.-Titulu akademikoak: Gehienez ere 4 puntu, baldin eta aurkeztutako titulu ofiziala ez bada jatorrizko taldean sartzeko eskatutakoa, eta, betiere, eskatutako lanposturako behar den titulu ofizialaren maila berekoa edo goragokoa bada.

Ondorio horietarako, honakoak baino ez dira kontuan hartuko:

- I., eta II. taldeak: a), b), c), d) eta e) ataletakoak.
- I, II., III. taldeetakoak: b), c), d), e), f) eta g) ataletakoak.
- IV. taldekoak: f), g) eta h) ataletakoak.



Merezimendu hau ondoko irizpide honen arabera baloratuko da:

- a) Doktore titulua: 2 puntu.
- b) Unibertsitateko masterraren titulu ofiziala, Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroan jaso; edo ikasketa aurreratuen diploma; edo ikertzeko gaitasun titulua: 0,50 puntu tituluko.
- c) Lizentziatu, graduatu, arkitekto edo ingeniari titulua: 1,75 puntu tituluko.
- d) Diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoaren titulua edo baliokidea: 1,5 puntu tituluko.
- e) Unibertsitate bateko graduondoko berezko titulua, 450 ordu edo gehiagokoa, edo gutxienezko iraupen hori bermatzen duen kreditu kopurua duena: 0,25 puntu tituluko.
- f) Lanbide Heziketako goi mailako teknikariaren titulua edo LHII: 1,25 puntu tituluko.
- g) Batxilergoko titulua (LOE edo LOGSE planekoa), Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko titulua, Lanbide Heziketako teknikari titulua, edo baliokidea: 0,75 puntu tituluko.
- h) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, eskola graduatua, Oinarrizko Batxilergoko titulua, edo baliokidea: 0,25 puntu tituluko.

Ez dira baloratuko alegatutako edo merezimendu bezala aurkeztutako gorako mailako titulua lortzeko beharrezko diren tituluak edo prestakuntza zikloak; salbuespena dira b) eta e) ataletan zehaztutako tituluak.

Tituluak baliokidetzat hartuko dira baliokidetasuna arlo profesionaleko ondorioetarako denean, baliokidetasunei buruz unean-unean aplikatu beharreko araudiari jarraikiz.

6.5.2.- Prestakuntza ikastaroak Gehienez ere 2 puntu lortu ahal izango dira UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntza Kabineteak antolatutako ikastaroekin, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak antolatu edo homologatutako ikastaroekin eta unibertsitate publikoek antolatutakoekin, baldin eta azken 10 urteetan egindakoak badira, gutxienez 8 ordukoak eta eskatu nahi den lanpostuaren jakintza arloarekin edo eginkizunekin zerikusia badute. Ikastaroak honen arabera barematuko dira:



- 8 eta 20 ordu bitarteko ikastaroak: 0,25 puntu ikastaroko.
- 20 ordu baino gehiagoko ikastaroak, 40 ordura arte: 0,5 puntu ikastaroko.
- 40 ordu baino gehiagoko ikastaroak, 80 ordura arte: 1,25 puntu ikastaroko.
- 80 ordu edo gehiagoko ikastaroak: 1,5 puntu ikastaroko.

Iraupena kreditutan adierazita egonez gero, kreditu bakoitza 10 orduren parekotzat hartuko da besterik adierazita egon ezean.

Iraupena ECTSetan adierazita egonez gero, kreditu bakoitza 25 orduren pareko izango da.

Egiaztagirietan ordu edo kreditu kopurua egon behar da zehaztuta: ez da baloratuko horrela egon ezean.

Gai berari buruzko ikastaroak edo ikastaro bera behin baino gehiagotan eginez gero, behin baino ez da kontuan hartuko, eta iraupen luzeena daukana baloratuko da.

Prestakuntza ikastaroen atalean ez dira baloratuko profesionaltasun ziurtagiriak, ez eta gaitasun unitateen zati bat egiaztatuta izana ere.

6.5.3.- Berdintasunaren arloko prestakuntza ikastaroak

Berdintasunaren arloan UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntza Kabineteak antolatutako ikastaroak: 0,04 puntu prestakuntza ordu bakoitzeko; gehienez, 1 puntu.

Ez dira kontuan hartutako hizkuntza ikastaroak. Salbuespen bakarra izango dira euskara teknikoko ikastaroak eta euskarako hobekuntza ikastaroak.

6.5.4.- Atzerriko hizkuntzak:

Atal honetan ingeleseko, frantseseko eta alemaneko tituluak/ziurtagiriak baloratuko dira, betiere, hizkuntza hori ez bada ezinbestekoa lanpostua betetzeko.



Atal honetan gehienez ere 2 puntu lortu ahal izango da, ondoko irizpideari jarraikiz (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua oinarri hartuta): .

B1 maila: 0,25 puntu.

B2 maila: 075 puntu.

C1 maila: 1 puntu.

C2 maila: 2 puntu.

Hizkuntzak baloratuko dira oinarri hartuta Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakia, ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetzari buruzkoa, Koordinazio eta Nazioarteko Harremanetako errektoreordeak 2017ko maiatzaren 22ko Erabakiaren bidez aldatua; kontuan hartuko dira, bestalde, baliokidetasun taulen bidez CRUEk emandako gomendioak.

6.6.- Euskara

Lanpostuak derrigortasun data gaindituta baldin badauka, ezinbestekoa da hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea lanpostua lortzeko; beraz, horrelakoetan, euskara ez da baloratuko merezimenduen atalean.

Gainontzeko lanpostuetan, euskara merezimendutzat hartuko da kasuan kasuko lanpostuak daukan hizkuntza eskakizuna oinarri hartuta, eta baloratuko da otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan, Euskal Sektorre Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoan, zehaztutakoari jarraikiz.

Derrigortasun data gainditu gabe daukaten lanpostuetarako lehiatuz gero, euskara merezimendua izango da, puntuazio honen arabera baloratua:

- a) 1. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:
 - a.1.- 1. HE akreditatuz gero: 3
- b) 2. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:
 - b.1.- 1. HE akreditatuz gero: 2,5
 - b.2.- 2. HE akreditatuz gero: 3



c) 3. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:

- c.1.- 1. HE akreditatuz gero: 2,5
- c.2.- 2. HE akreditatuz gero: 3
- c.3.- 3. HE akreditatuz gero: 4,5

d) 4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:

- d1.- 1. HE akreditatuz gero: 2,5
- d2.- 2. HE akreditatuz gero: 3
- d3.- 3. HE akreditatuz gero: 4,5
- d4.- 4. HE akreditatuz gero: 6

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak, 37.4 artikuluan zehaztutakoari jarraikiz, C2 hizkuntza eskakizuna esleitura duten eta derrigortasun data igarota duten lanpostuak hautatu eta betetzeko prozesuetan, hautagaietako batek ere ez badu egiaztatzen eskakizun hori, C1 hizkuntza eskakizuna aplikatuko zaio lanpostu horri, lanpostua hautatzeko edo betetzeko deialdiaren ondorioetarako soilik.

7.- Merezimenduak eta bete beharreko baldintzak egiaztatzea.

7.1.- Irizpide orokorrak.

7.1.1.- Eskariak aurkezteko epean alegatu beharko dira baldintza eta merezimendu guztiak. Prozedura honen helburuetarako, ofizioz hartuko dira kontuan langileen erregistroan jasota dauden merezimendu guztiak.

7.1.2.- Lehiaketan parte hartzen dutenek langileen erregistroan jasota ez dauden merezimenduak eta baldintzak baino ez dituzte egiaztatu behar eskariak egiteko epean.

7.1.3.- Langileen erregistroan jasota dauden merezimendu eta agiriak Langileen Atarian ikus daitezke.



7.2.- Antzinatasuna. Antzinatasuna ofizioz hartuko da kontuan, eta, beraz, ez da egiaztatu beharko.

Beste administrazio publiko batzuetan egindako lana ez badago langileen erregistroan jasota, kasuan kasuko administrazioan langileen arloan eskumena daukan organoak egindako agiriaren bidez egiaztatu beharko da.

7.3.- Emandako zerbitzuak. Deialdiko 6. oinarriko 6.2 eta 5.3 atalei dagozkien zerbitzuak UPV/EHUK berak jakinaraziko ditu eta, hortaz, lehiakideek ez dituzte egiaztatu beharko.

7.4.- Titulazioak. Tituluaren kopia erkatuaren bidez egiaztatuko dira, baldin eta titulu horiek ez badira aurkeztu izan lehenago egindako prozesuetan. Horrelakoetan, titulazioak alegatzeko, nahikoa izango da kasuan kasuko prozesua aipatzea.

7.5.- Ikastaroak. Langileen erregistroan jasota ez dauden prestakuntza ikastaro gaindituak alegatu egin beharko dira, eta kasuan kasuko organo edo erakundeak emandako kopia erkatuaren edo ziurtagiriaren bidez egiaztatu.

7.6.- Atzerriko hizkuntzak. Tituluaren kopia erkatuaren bidez egiaztatuko dira, baldin eta titulu horiek ez badira aurkeztu izan lehenago egindako prozesuetan. Horrelakoetan, titulazioak alegatzeko, nahikoa izango da kasuan kasuko prozesua aipatzea.

7.7. Euskara. Ofizioz hartuko dira kontuan UPV/EHUko langileen erregistroan jasotako hizkuntza eskakizunen egiaztagirak.

Langileen erregistroan jasota ez dauden hizkuntza eskakizunak alegatu egin beharko dira, eta kasuan kasuko erakunde ofizialak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu.

Euskarako titulu eta ziurtagirien baliokidetzak araututa daude 297/2010 Dekretuan, azaroaren 9koan, zeinaren bidez euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen diren.



7.8.- Merezimenduak eskariak aurkezteko azken eguna baino lehen izan behar dira eskuratuta. Ez dira hartuko kontuan eskariak aurkezteko epearen barruan aurkezten eta egiaztatzen ez diren merezimenduak.

7.9.- Epaimahaiak azalpenak eskatu ahal izango dizkie parte hartzen duten lehiakide guztiei, edo dokumentu gehiago aurkezteko esan, beharrezkotzat jotzen baditu aurkeztutako merezimenduak egiaztatzeko.

8.- Epaimahaia

8.1.- Epaimahai bakarra egongo da eta kideen kopuru bakoitia izango du, eta gutxienez hiru. Haietako bat epaimahaiko burua izango da eta beste bat, idazkaria.

Emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua orekatua izan beharko da, behar bezala arrazoitutako kasuetan izan ezik.

Epaimahaiko kideak lan kontratudun finkoak izan behar dira, deitutako lanpostuen titulazio talde berekoak edo goragoko taldekoak.

8.2.- Epaimahaiaren eginkizuna izango da: lehiakideek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea, merezimenduak baloratzea, egoki izanez gero deialdia egin duen organoari puntuazio handiena lortu duten hautagaiak proposatzea lanpostuak esleitzeko, eta, oro har, oinarri hauek bete egiten direla bermatzea.

Epaimahaiak erabateko independentzia izango du, diskrezionalitate tekniko eta objektibitatez egingo du lan, eta egiten dituen proposamenak lotesleak izango dira UPV/EHUko gerentearentzat.

Diskrezionalitate teknikoa gorabehera, erabakiak arrazoitu egin beharko ditu, arauak eta oinarriak betetzeko. Epaimahaiak, bere jardunean, beteko ditu: oinarri hauek; administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen III. hitzarmen kolektiboa; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

Hautaketa prozesu orotan zaindu beharreko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen alde (abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoari



buruzkoa, 70. art.), epaimahaiaren deliberazioak isilpean gordeko dira. Era berean, epaimahaiak hartutako erabakiak isilpean gorde beharko dira, kasuan kasuko prozeduraren bidez argitara ematen diren arte.

8.3.- Epaimahaiko buruak deia eginda, epaimahaia osatzeko bilera egingo da. Horretarako, bertan egon beharko dira bai epaimahaiko burua eta bai idazkaria (edo horien ordezkioak) eta batzordeko kideen erdiak, gutxienez.

Lehiaketa ondo egin dadin beharrezkoak izan daitezkeen erabaki guztiak hartuko ditu epaimahaiak bileretan.

Epaimahaia balioz aritzeko, behin eratuta, aurreko atalean aipatutako kideetako bi egon beharko dira gutxienez bileretan. Dena dela, beharrezko ikusten duen aholkularitza eta materiala izan ahalko du epaimahaiak.

8.4.- Epaimahaiak eskumena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta hartu beharreko erabakiak hartzeko, oinarrietan zehaztutakoari jarraituz egin dadin lehiaketa.

8.5.- Epaimahaikideek konpentsazio ekonomikorik izatekotan, aplikatuko dira UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2024ko otsailaren 22an hartutako Erabakia, UPV/EHUko zerbitzu ordainei buruzko zehaztapenak ezartzen dituenak, eta 2024ko otsailaren 23ko Erabakiaren arabera (UPV/EHUko zerbitzuengatik eta protokolo eta ordezkariak gastuengatik ordainen arloko zehaztapenei buruzkoa).

8.6.- Jakinarazpenetarako eta bestelako gorabeheretarako, hau izango da epaimahaiaren helbidea: Bizkaiko Campusa, Pertsonaleko Gerenteordetza, TEKAZELen Zerbitzua, Langileak Hautatu eta Lanpostuak Betetzeko Atala, Sarriena auzoa z.g.- 48940 Leioa.

9- Puntuazioak argitaratzea

Merezimenduak baloratu eta baldintza betetzen direla egiaztatu ondoren, lehiakideek lortutako puntu behin behineko zerrenda adostuko du epaimahaiak eta 12. oinarrian adierazitako web gunean argitaratuko du..



Erabaki horren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote lehiakideek epaimahaiari bost egun balioduneko epean, erabakia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Erreklamazioak behin ebatzita, behin betiko puntuazioak argitaratuko dira.

10.- Lanpostuak esleitzea eta parte hartzeari uko egitea

10.1.- Esleipenerako hurrenkera 6. oinarriko baremazioa oinarri hartutako lortutako puntuazioaren arabera izango da.

10.2.- Berdinketarik egonez gero, honako irizpideak ezarriko dira hurrenez hurren:

-Emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia %40ren azpitik dagoen administrazioako kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenak, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.

- Merezimenduetan lortutako puntuazioa, handienetik txikienera ordenaturik, deialdiko baremazioari jarraikiz. Merezimenduetan ere puntu berdinketa badago, deialdiko oinarrietan agertzen den hurrenkera aplikatuko da.

- Lortutako puntuazioa, gehieneko muga aplikatu gabe.

- UPV/EHUrentzat zerbitzuak ematen hasi zen data, berdinketa hausteko lehentasuna datarik zaharrenean izanik.

10.3.- Epaimahaiak, behin betiko puntuazioa oinarri hartuta eta lehiakide bakoitzak eskatutako lanpostuen hurrenkerari hertsiki jarraikiz, I. eranskinean deitutako lanpostuak esleituko ditu.

Ondoren, behin-behineko esleipena argitaratuko da, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da erreklamazioak aurkezteko.

10.4.- Eskari egileak eskariari uko egiteko aukera izango du aurreko paragrafoan adierazitako epean. Uko egiteko eskaria idatziz aurkeztu beharko zaio gerenteari erregistro bidez.



10.5.- Ondoren, epaimahaiak deialdiko lanpostuen behin betiko esleipena proposatuko du eta proposamen hori UPV/EHUko gerenteari helaraziko dio. UPV/EHUko gerenteak ezagutzera emango ditu lanpostuen esleipenak, horretarako emango duen ebazpenaren bitartez. Ebazpen horretan ere jasoko da ondorioetarako data, lan eskaintza publikoei lotutako sarrera prozesuen arloan negoziatu ondoren ezarriko dena.

10.6.- Esleituko diren lanpostuak langileek eurek eskatutakoak izango dira eta, beraz, ez da egongo inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik.

10.7.- Lanpostua gordetzeko egoeraren batean egonda lehiaketa honetan parte hartu eta lanposturen bat lortzen duten langileek, egoera administratibo horretan jarraituko dute baldin eta lanera itzultzeko eskaririk egiten ez badute, eta eskari hori egiteko, esleipenerako erabakian zehaztuko den epea izango dute.

11.- Datu pertsonalak babestea hautaketa prozesuan

11.1.- Lehiaketaren gestioan, datu pertsonalak "Lanpostuen aukeraketa eta hornitzea" eta "Langileen espedienteak" izeneko fitxategietan tratatuko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez sortuak (unibertsitateko datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatzeari buruzko erabakia, 2007ko apirilaren 11ko EHAA). Bi fitxategi horien administrazio organo arduraduna Euskal Herriko Unibertsitatea bera izango da, eta unibertsitateko DBLO segurtasun arduradunarengana jo ahal izango da kontra egiteko, fitxategietan sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatzeko.

11.2.- Eskaria egiteko ereduari gai honi buruzko informazioa emango duen klausula bat egongo da.

11.3 Prozedura honetan parte hartzeak berekin dakar baimena ematea eskarian emandako datu pertsonalak tratatzeko, behin-behineko eta behin betiko emaitzak web orrian argitaratzeko.

Beraz, eskaria sinatzeak esan nahi du eskatzaileak honen gaineko informazioa jaso duela eta baimena ematen duela bere datuak aipatutako helburuetarako erabil daitezen.

11.4.- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioko langileek, epaimahaietako kideek eta horiei laguntza emango dieten adituek, halakorik egonez gero, isilpean



gordeko dute prozesuaren kudeaketan beren eskuetara heltzen diren datu pertsonalen informazioa.

11.5.- Oinarriei jarraituz hautaketa prozesuko faseetan argitara ematen diren behin-behineko eta behin betiko zerrendetan zabalkunde printzipioa betetzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak baino ez dira agertuko. Zerrenda horiek prozesua amaitu arte egongo dira ikusgai, bai eta erreklamazioak edo errekurtsioak jartzeko beharrezkoa izan daitekeen denbora guztian ere.

Zerrenda horietan klausula bat jarriko da, adierazita datuak pertsonalak direla, zerrendak bete egiten duela datuak babesteko alorrean indarreko legeriak dioena, eta zerrendaren helburu bakarra dela hautaketa prozesuko kasuan kasuko fasearen berri ematea eta parte hartzaileak jakinaren gainean jartzea. Era berean, paragrafo batean adieraziko da zerrenda horiek ez direla egongo herritarren esku, ezingo direla kopia, ez osorik ez zati batean, eta ezingo direla ez transmititu ez erregistratu informazioa berreskuratzeko inongo sistemarik erabilita, baldin eta interesdunek horretarako baimenik ematen ez badute.

12.- Informazioa argitaratzeko gunea

12.1.-Lehiaketan parte hartzen dutenek jakin beharreko informazio guztia, eta, zehazki, lehiakide onartuen eta baztertuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak, behin-behineko eta behin betiko puntuazioak eta esleipenen behin-behineko proposamena iragarki ohol hauetan argitaratuko dira:

Intranet: "Langileen Ataria".

Internet: <https://www.ehu.eus/es/web/azp/barne-deialdiak>

Argitalpenok izango dira balioa izango duten bakarrak oinarri hauetan ezarritako epeak zenbatzerakoan. Era berean, hori izango da interesatuei jakinarazpenak egiteko era. Beraz, ez da beharrezkoa izango horrez gain beste iragarki ohol batzuetan edo bestelako hedabideetan argitaratzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraikiz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

